

*Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma* proiektuaren komisario lanak Leyre Goikoetxea Martínezek egin ditu, betiere Anabel Quincoces, Belén Cerezo eta Miriam Isasi artistekin Eskualdea ekimenaren baitan. Ekimena, zehazki, esku-hartze artistikoa Araban bultzatzeko programa bat da, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta Artium Museoak ekoiztua.

*Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma* es un proyecto comisariado por Leyre Goikoetxea Martínez con las artistas Anabel Quincoces, Belén Cerezo y Miriam Isasi, en el marco de Eskualdea, programa de intervención artística en el territorio impulsado por la Diputación Foral de Álava y producido por el Museo Artium.

# UN TRIÁNGULO, TRES VÉRTICES._SER_RIZOMA

Anabel Quincoces / Belén Cerezo / Miriam Isasi

# ERAKUSKETAK
# EXPOSICIONES

## *CARPINTEROS*
## MIRIAM ISASI

Technoa eta dantza eskutik helduta doaz lan performatibo honetan. Lanaren oinarria Izkiko Parke Naturaleko okilen gaineko ikerlan bat da, azterlan horretatik abiatuta ondu baita. Artistak loturak egin ditu ornitologoek erabilitako okilen apeuen, basoaren plastikotasunaren, eta Duga-3 antenak egindako soinuen artean. Antenari «okil errusiarra» esaten diote.

**KREDITUAK:** Genzo P. (soinua), Laura G. Del Amo (kamera eta edizioa), Marcos García Casanova (interpretea/ dantzaria).

Noiz: 2019ko Urriaren 1etik 31ra
Asteartetik igandera
Ordutegia: 10:00 -14:30 / 16:00-18:00
Non: Izkiko Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa
(Afuera Kalea zk.g. Korres)

## *CARPINTEROS*
## MIRIAM ISASI

Techno y danza conviven en esta pieza performativa, generada a partir de una investigación sobre la colonia de pájaros carpinteros localizada en el Parque Natural de Izki. La artista establece conexiones entre los reclamos de los pájaros carpintero empleados por los ornitólogos, la plasticidad del bosque y los sonidos emitidos por la antena Duga-3, conocida como «el pájaro carpintero ruso».

**CRÉDITOS:** Genzo P. (sonido), Laura G. Del Amo (cámara y edición), Marcos García Casanova (intérprete/ bailarín).

Fecha: del 1 al 31 de Octubre de 2019
De martes a domingo
Horario: 10:00h -14:30h / 16:00h -18:00h
Lugar: Centro de Interpretación del Parque Natural de Izki
(Calle Afuera, s/n. Corres)

## *MEMORIAS DE AZUFRE Y SAL*
## ANABEL QUINCOCES

*Memorias de azufre y sal* Anabel Quincoces artistaren esku-hartze bikoitza da, Añanako Gatz Haraneko eta Zuhatzu Kuartangoko ur gazi eta sufretsuetako «biztanleen» oroimena aztertzen duena. Beste izaki ikusezin horiei, habitatak eragin zizkien eta eragiten dizkieten aldaketak jasaten ari direnei egindako omenaldia.

### INSTALAZIOA: *BURBUJAS DE AZUFRE*

Noiz: urriaren 12tik azaroaren 10era
Non: Zuhatzu Kuartangoko Bainuetxe zaharra

### INSTALAZIOA: *RESILIENCIA ROJA-PANSPERMIA*

Noiz: urriaren 3tik azaroaren 2ra
Non: Añanako Gatz Haranean (Miguel Díaz de Tuesta plaza 1, Gesaltza Añana).

**KREDITUAK:** Jon Bellido (musika), Beñat Fontaneda (kamera eta edizioa)

## *MEMORIAS DE AZUFRE Y SAL*
## ANABEL QUINCOCES

*Memorias de azufre y sal* es una doble intervención de la artista Anabel Quincoces que indaga sobre la memoria de los «habitantes» de las aguas salinas y sulfurosas del Valle Salado de Añana y Zuazo Kuartango. Un homenaje a esos otros seres, los invisibles, los que estaban y están experimentando los cambios que el hábitat les depara.

### INSTALACIÓN: *BURBUJAS DE AZUFRE*

Fecha: del 12 de octubre al 10 de noviembre
Lugar: Antiguo Balneario de Zuazo de Kuartango

### INSTALACIÓN: *RESILIENCIA ROJA-PANSPERMIA*

Fecha: del 3 de octubre al 2 de noviembre
Lugar: Valle Salado de Añana (Plaza Miguel Díaz de Tuesta 1, Salinas de Añana)

**CRÉDITOS:** Jon Bellido (música), Beñat Fontaneda (cámara y edición)

## *PRESENTE CONTINUO*
## BELÉN CEREZO

Nolakoa da eguneroko bizitza Arabako landa inguruan? Nola hurbil dakioke argazkiaren eta bideoaren bidezko behaketa zehatza lurralde bateko bizitzaren konplexutasunari? Belén Cerezo galdera horietatik abiatu da Artziniegako kaleetan argazkien bidezko esku-hartze bat egiteko. Herriaren errealitate soziala eta kulturala eta ingurumenaren egoera aztertu ditu argazki horietan. Era berean, Zuhatzu Kuartangoko erakusketan jarriko den ikus-entzunezko instalazio murgiltzaile batean aztertuko dira gai horiek.

Noiz: 2019ko azaroaren 30etik
2020ko urtarrilaren 8ra
Herria: Artziniega
Eremu publikoko instalazioa

## *PRESENTE CONTINUO*
## BELÉN CEREZO

¿Cómo es el día a día en el entorno rural de Álava? ¿Cómo la observación detallada a través de la fotografía y el video puede aproximarse a la complejidad del tejido de la vida en un territorio? Belén Cerezo parte de estas preguntas para realizar una intervención con fotografías en las calles de Artziniega que indaga en la realidad social, medioambiental y cultural de dicha localidad. Asimismo, este proyecto explorará estas cuestiones en una instalación audiovisual que tendrá lugar en la exposición Zuazo de Kuartango.

Fecha: del 30 de noviembre de 2019
al 8 de enero de 2020
Localidad: Artziniega
Instalaciones en el espacio público

# UN TRIÁNGULO, TRES VÉRTICES. _SER_RIZOMA [ERAKUSKETA KOLEKTIBOA]

**_Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma_ proiektuaren komisario lanak Leyre Goikoetxea Martínezek egin ditu, betiere Anabel Quincoces, Belén Cerezo eta Miriam Isasi artistekin Eskualdea ekimenaren baitan. Ekimena, zehazki, esku-hartze artistikoa Araban bultzatzeko programa bat da, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta Artium Museoak ekoiztua.**

*Lau irudi, hainbat izaki, ezin konta ahala ikuspegi.*
*Lehen, bigarren planoa eta hondoa.*
*Forma organikoak, simetrikoak, begetala eta geometria.*
*Berdea, urdina, beltza.*
*Hiru erpin triangelu bat dira; lau, mendi bat.*
*Lotu puntu-lerrotik, haren barruan eta kanpoan margotuta.*
*Batu eta esperimentatu.*
*Hiru proiektu batean bildurik. Proiektu bat hainbat direnak.*
*Partekatu, erabakitzeko.*

*Organikoa geometrikoa baino onartuagoa da, batak bestetik edaten badu ere. Hiru zenbakiari oreka dario. Naturak berezko harmonia bat dauka, arrazoimenetik hurbil dagoela iruditu liezagukeena; baina, pentsatzen al du naturak?*
*Sorkuntza lanek hurbiletik eternora eraman nahi gaituzte, eta harainditik, testuingurura.*
*Etorkizuna, oraina, iragana. Norantz goazen, nondik gatozen, non gauden.*

Proiektuaren irudiak ariketa erraz bat du abiaburu, eta ariketa horrek forma ematen dio hasierari. Proiektua gauzatuko den eta abiaburu dituen kokapenen batasuna da; Artziniega eta bertako Museo Etnografikoa, Gesaltza Añanako Gatz Harana eta Izkiko Parke Naturala. Horrek guztiak Zuhatzu Kuartangoko Bainuetxe zaharrean izanen du bere jarraipena eta batasuna, erakusketa hortxe egongo baita ikusgai.

## MUNTAKETA IREKIA IZANGO DA PUBLIKOARENTZAT:

Noiz: urriaren 7tik 11ra, 18:00tik 20:00ra.

## ERAKUSKETA:

Noiz: urriaren 12tik azaroaren 10era.
▪ Ostegunak eta ostiralak, 18:00tik 20:00ra.
▪ Larunbatak eta igandeak, 12:00tik 14:00ra eta 18:00tik a 20:00ra.
Non: Zuhatzu Kuartangoko bainuetxea.
(Zuhatzu Kuartango 21, 01430, Araba)

# UN TRIÁNGULO, TRES VÉRTICES. _SER_RIZOMA [EXPOSICIÓN COLECTIVA]



***Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma* es un proyecto comisariado por Leyre Goikoetxea Martínez con las artistas Anabel Quincoces, Belén Cerezo y Miriam Isasi, en el marco de Eskualdea, programa de intervención artística en el territorio impulsado por la Diputación Foral de Álava y producido por el Museo Artium.**

*Cuatro figuras, varios seres, infinidad de visiones.*
*Primer, segundo plano y fondo.*
*Formas orgánicas, simétricas, vegetal y geometría.*
*Verde, azul, negro.*
*Tres vértices son un triángulo, cuatro una montaña.*
*Unir por la línea de puntos pintando dentro y fuera de ella.*
*Sumar y experimentar.*
*Tres proyectos que hacen uno. Un proyecto que son varios.*
*Compartir para decidir.*

*Lo orgánico es más aceptado que lo geométrico, aunque uno beba del otro.*
*Tres es un número que emana equilibrio.*
*La naturaleza posee una armonía innata que podría parecernos cercana a lo razonado, pero ¿piensa la naturaleza?*
*Creaciones que buscan transportarnos desde lo cercano a lo eterno y del más allá al contexto.*
*Futuro, presente, pasado. Hacia dónde vamos, de dónde venimos, dónde estamos.*

La imagen del proyecto parte de un sencillo ejercicio que da forma al inicio. Se trata de la unión de los emplazamientos en los que tendrá lugar y de los que parte; Artziniega y su Museo Etnográfico, el Valle Salado de Salinas de Añana y el Parque Natural de Izki. Todo ello tendrá continuidad y unión en el Antiguo Balneario de Zuazo de Kuartango donde podremos ver la exposición.

## MONTAJE ABIERTO AL PÚBLICO:

Fecha: del 7 al 11 de octubre, de 18:00h a 20:00h.

## EXPOSICIÓN:

Fecha: del 12 de octubre al 10 de noviembre.
- Jueves y viernes, de 18:00h a 20:00h
- Sábados y domingos, de 12:00h a 14:00h y de 18:00h a 20:00h

Lugar: Antiguo Balneario de Kuartango. (Zuhatzu Kuartango 21, 01430, Araba)

# JARDUERAK
## ACTIVIDADES

## PERFORMANCEA: *CARPINTEROS* MIRIAM ISASI

Technoa eta dantza eskutik helduta doaz lan performatibo honetan. Lanaren oinarria Izkiko Parke Naturaleko okilen gaineko ikerlan bat da, azterlan horretatik abiatuta ondu baita.
Artistak loturak egin ditu ornitologoek erabilitako okilen apeuen, basoaren plastikotasunaren, eta Duga-3 antenak egindako soinuen artean. Antenari «okil errusiarra» esaten diote.
Zuzeneko lana kuatrifonian aurkeztuko da, soinuaren bidez halako giro inguratzaile bat sortuta.

2019ko irailaren 14a, larunbata
18:00etan
Zuhatzu Kuartangoko bainuetxe zaharra

***Autobus zerbitzua***

- *17:00etan. Irteera Artiumetik Zuhatzu Kuartangora joateko*
- *19:00etan. Irteera Zuhatzu Kuartangotik Artiumera itzultzeko*

*Doako autobus zerbitzua, untriangulotresvertices@gmail.com helbidera idatziz izena emanda.*
***Toki mugatua***

## PERFORMANCE: *CARPINTEROS* MIRIAM ISASI

Techno y danza conviven en esta pieza performativa, generada a partir de una investigación sobre la colonia de pájaros carpinteros localizada en el Parque Natural de Izki. La artista establece conexiones entre los reclamos de los pájaros carpintero empleados por los ornitólogos, la plasticidad del bosque y los sonidos emitidos por la antena Duga-3, conocida como «el pájaro carpintero ruso».
El directo se presentará en cuatrifonía, creando una atmósfera envolvente con el sonido.

Sábado, 14 de septiembre 2019
18:00h
Antiguo Balneario de Zuazo de Kuartango

***Servicio de autobús***

17:00h Salida desde Artium a Zuazo Kuartango

- 19:00h Salida desde Zuazo Kuartango a Artium

*Servicio de autobús gratuito previa inscripción por mail a untriangulotresvertices@gmail.com.*
***Plazas limitadas***

## MAHAI INGURUA
## MUSIKA / ORNITOLOGIA / DANTZA (TXORIAK ETA PERFOMANCEA)

Mahai inguruaren helburua da hegaztien irudideriaz hitz egitea, bai eta haren interpretazioaz eta sormenezko diziplinetan duen aplikazioaz ere, diziplina horiek mugimendua eta soinua ardatz gisa lotzen baitituzte ekintza performatiborako.

### HIZLARIAK:

- Rosario Granell (dantzaria eta koreografogilea)
- Luca Rullo - Soinumapa (soinu artista)
- Jonathan Rubines (biologoa)
- Miriam Isasi (artista)

2019ko irailaren 29a, igandea
12:00etan
Izkiko Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa (Korres)

## MESA REDONDA
## MÚSICA / ORNITOLOGÍA / DANZA (PÁJAROS Y PERFORMANCE )

El objetivo de esta mesa redonda es conversar en torno al imaginario de las aves y su interpretación y aplicación en disciplinas creativas, que vinculan el movimiento y el sonido como eje para la acción performativa.

### PONENTES:

- Rosario Granell (bailarina y coreógrafa)
- Luca Rullo - Soinumapa (artista sonoro)
- Jonathan Rubines (biólogo)
- Miriam Isasi (artista)

Domingo, 29 de septiembre 2019
12:00h
Centro de interpretación del Parque Natural de Izki (Korres)

# IBILALDIA AUTOBUSEZ

Anabel Quincocesen ***Resiliencia Roja-Panspermia*** instalazioaren bisita Añanako Gatz Haranean eta Leyre Goikoetxeak komisariatutako ***Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma*** talde erakusketarena Zuhatzu Kuartangon.

Azken herri horretan, 19:30ean ***Panspermia o la creación del agua*** piezaren kontzertua emango du Jon Bellido musikariak.

## *PANSPERMIA O LA CREACIÓN DEL AGUA* PERFORMANCE-KONTZERTUA

Jon Bellido musikariak zuzenean interpretatuko du ***Memorias de Azufre y Sal*** proiekturako sortutako musika pieza, Panspermia sinbolizatzen duten hainbat soinu geruzaz osatua: bizitza partikulak lurrera eramaten dituen kometa, ozeanoaren sakontasuneko soinuak, bizitzaren sorrera eta sortu den bizitza.

2019ko urriaren 12an, larunbata
Ordutegia:
- 16:00etan Irteera Artiumetik
- 21:00etan Irteera Zuhatzu Kuartangotik Artiumera

*Doako autobus zerbitzua, untriangulotresvertices@gmail.com helbidera idatziz izena emanda.*
***Toki mugatua***

# RUTA EN BUS

Visita a la instalación ***Resiliencia Roja-Panspermia*** de Anabel Quincoces en el Valle Salado Añana y a la exposición colectiva ***Un triángulo, tres vértices_Ser rizoma*** en Zuazo de Kuartango, comisariada por Leyre Goikoetxea.

A las 19:30h., tendrá lugar en esta localidad el concierto de la pieza ***Panspermia o la creación del agua*** a cargo del músico Jon Bellido.

## PERFORMANCE-CONCIERTO *PANSPERMIA O LA CREACIÓN DEL AGUA*

El músico Jon Bellido interpretará en directo la pieza musical creada para el proyecto ***Memorias de Azufre y Sal***, conformado de varias capas sonoras que simbolizan la Panspermia: el cometa que lleva las partículas de vida a la tierra, los sonidos de la profundidad del océano, la creación de la vida y la vida que ha surgido.

Sábado, 12 de octubre 2019
Horario:
- 16:00h Salida desde Artium
- 21:00h Salida desde Zuazo Kuartango a Artium

*Servicio de autobús gratuito previa inscripción por mail a untriangulotresvertices@gmail.com*
***Plazas limitadas***

# OBJETUARIUM
## TAMARA GARCÍAK EMANDAKO ZIANOTIPOEN LANTEGIA

Parte-hartzaileei zianotipoaren argazki-teknikaren hastapenak ematea da lantegiaren helburua. Belen Cerezo artistaren ***Presente Continuo*** proiektuarekin lotuz, eguneroko objektuen zianotipoak egingo dira.

Larunbatean 2019ko urriaren 19an
11:00etatik 13:00etara.
Artziniegako Udaletxe zaharrean
(Goiko Plaza 1, 01474 Artziniega. Araba)

*Publiko guztiei zuzendutako jarduera. 12 urtez azpikoak, heldu bat lagun dutela. Ez da aldez aurretik inolako ezagutzarik behar.*

***Izen-ematea:***
*untriangulotresvertices@gmail.com*
***Toki mugatua***

# OBJETUARIUM
## TALLER DE CIANOTIPOS IMPARTIDO POR TAMARA GARCÍA

En él nos introduciremos en la técnica fotográfica de la cianotipia. Conectando con el proyecto ***Presente Continuo*** de la artista Belén Cerezo en el taller realizaremos cianotipos de objetos cotidianos.

Sábado, 19 de octubre 2019
De 11:00h a 13:00h
Antiguo Ayuntamiento de Artziniega
(Goiko Plaza 1, 01474 Artziniega. Araba)

*Esta actividad está dirigida a todos los públicos. Menores de 12 años acompañados de un adulto. No se requiere ningún tipo de conocimiento previo.*

***Inscripciones:***
*untriangulotresvertices@gmail.com*
***Plazas limitadas***

## *ARTEMIAS* LANTEGIA ANABEL QUINCOCESEKIN

Uretan bizi diren izaki abisalen ideiatik abiatuta, ariketa artistikoak egitea proposatzen da.

2019ko urriaren 27an, igandea
11:00etatik 13:00etara
Gesaltza Añanako Gizarte Zentroan
(Don Miguel Díaz de Tuesta plaza, 2)

*6-14 urte bitarteko haurrentzat.*

***Izen-ematea:***
*untriangulotresvertices@gmail.com*
***Toki mugatua***

## TALLER *ARTEMIAS* CON ANABEL QUINCOCES

A partir de la idea de los seres abisales que habitan en las aguas, se propone la realización de ejercicios artísticos.

Domingo, 27 de octubre 2019
De 11:00h a 13:00h
Centro Social de Salinas de Añana
(Plaza Don Miguel Díaz de Tuesta, 2)

*Dirigido a niños y niñas de entre 6 a 14 años.*

***Inscripciones:***
*untriangulotresvertices@gmail.com*
***Plazas limitadas***

## *PANSPERMIA O LA CREACIÓN DEL AGUA* PERFORMANCE-KONTZERTUA

Jon Bellido musikariak zuzenean interpretatuko du *Memorias de Azufre y Sal* proiekturako sortutako musika pieza, Panspermia sinbolizatzen duten hainbat soinu geruzaz osatua: bizitza partikulak lurrera eramaten dituen kometa, ozeanoaren sakontasuneko soinuak, bizitzaren sorrera eta sortu den bizitza.

2019ko azaroaren 2an, larunbata
13:30ean
Añanako Gatz Haranean

## PERFORMANCE-CONCIERTO *PANSPERMIA O LA CREACIÓN DEL AGUA*

El músico Jon Bellido interpretará en directo la pieza musical creada para el proyecto *Memorias de Azufre y Sal*, conformado de varias capas sonoras que simbolizan la Panspermia: el cometa que lleva las partículas de vida a la tierra, los sonidos de la profundidad del océano, la creación de la vida y la vida que ha surgido.

Sábado, 2 de noviembre 2019
13:30h
Valle Salado de Añana

## PRAKTIKA ARTISTIKOAK ETA LANDA-LURRALDEA, MARC BADALEN HITZALDIA

Hitzaldian praktika artistikoen eta landa-inguruneen arteko gurutzaketak jorratuko dira. Ondoren, Marc Badalen eta Belén Cerezo, Anabel Quincoces, Miriam Isasi, Leyre Goikoetxea eta Enrique Martínez Goikoetxearen arteko solasaldia izango da.

Ostiralean, 2019ko azaroaren 10ean
12:00etan
Zuhatzu-Kuartangoko Bainuetxea

**Marc Badal** (Bartzelona, 1976). Duela hogei urtetik hona uztartzen ditu nekazaritza-ekologiako kolektiboetan eta mugimenduetan egiten den praktika eta elikadura-sistemaren, landa-historiaren eta nekazari-kulturaren inguruko ikerketarekin. 2013. urteaz geroztik Kristina Enea Fundazioaren (Donostia) haziera hazi-artxiboko arduraduna da. Artikulu ugari eta hainbat liburu argitaratu ditu. Landa-munduaren eta ekoizpen kulturalaren arteko muga esploratzen duen Kanpoko Bulegoa izeneko pentsamendu aplikatuko artisau-lantegiaren kidea da.

## PRÁCTICAS ARTÍSTICAS Y TERRITORIO RURAL, CHARLA POR MARC BADAL

Marc Badal hará una presentación sobre los cruces entre prácticas artísticas y entornos rurales. Posteriormente habrá una conversación entre Marc Badal y Belén Cerezo, Anabel Quincoces, Miriam Isasi, Leyre Goikoetxea y Enrique Martínez Goikoetxea.

Viernes, 10 de noviembre 2019
12:00h
Balneario de Zuazo de Kuartango

**Marc Badal** (Barcelona, 1976). Desde hace veinte años compagina la práctica en colectivos y movimientos agroecológicos con la investigación en torno al sistema alimentario, la historia rural y la cultura campesina. Desde 2013 es el responsable de Haziera, el archivo de semillas de la Fundación Cristina Enea (Donostia). Ha publicado numerosos artículos y varios libros. Es miembro de Kanpoko Bulegoa, un obrador artesanal de pensamiento aplicado que explora la frontera entre el mundo rural y la producción cultural.

## *PRESENTE CONTINUO*-REN BISITA GIDATUA ETA INAUGURAZIOA

Paseoa Artziniegan barrena Artea Elkarteak eta Belen Cerezok gidatuta, herria bisitatzeko eta bertako kaleetan egindako argazki esku-hartzeak ikusteko.

Larunbatean, 2019ko azaroaren 30ean
11:30etik 13:00etara
Topagunea: Artziniegako Etnografia Museoa.

***Autobus zerbitzua***

*10:00etan: irteera Artiumetik Artziniegara*
*14:00etan: irteera Artziniegako Etnografia Museotik Artiumera*

*Doako autobus zerbitzua, untriangulotresvertices@gmail.com helbidera idatziz izena emanda.*
**Toki mugatua**

## VISITA GUIADA E INAUGURACIÓN DE *PRESENTE CONTINUO*

Paseo por Artziniega guiado por la Asociación Artea y Belén Cerezo para visitar el pueblo y las intervenciones fotográficas realizadas en sus calles.

Sábado, 30 de noviembre 2019
De 11:30h a 13:00h
Punto de encuentro: Museo Etnográfico de Artziniega.

***Servicio de autobús***

*10:00 Salida desde Artium a Artziniega*
*14:00 Salida desde Museo Etnográfico de Artziniega a Artium.*

*Servicio de autobús gratuito previa inscripción por mail a untriangulotresvertices@gmail.com.*
**Plazas limitadas**

# UN TRIÁNGULO, TRES VÉRTICES_SER RIZOMA

Proiektuaren komisario lanak Leyre Goikoetxea Martínezek egin ditu, betiere Anabel Quincoces, Belén Cerezo eta Miriam Isasi artistekin Eskualdea ekimenaren baitan. Ekimena, zehazki, esku-hartze artistikoa Araban bultzatzeko programa bat da, Arabako Foru Aldundiak sustatua eta Artium Museoak ekoiztua.

**INFO+**
https://untriangulotresvertices.wordpress.com/
https://www.instagram.com/untriangulo_tresvertices/
https://www.facebook.com/untriangulotresverticesrizoma

# UN TRIÁNGULO, TRES VÉRTICES_SER RIZOMA

Proyecto comisariado por Leyre Goikoetxea Martínez con las artistas Anabel Quincoces, Belén Cerezo y Miriam Isasi, en el marco de Eskualdea, programa de intervención artística en el territorio impulsado por la Diputación Foral de Álava y producido por el Museo Artium.

**+INFO**
https://untriangulotresvertices.wordpress.com/
https://www.instagram.com/untriangulo_tresvertices/
https://www.facebook.com/untriangulotresverticesrizoma

# ESKUALDEA 2019

Antolatzaileak / Organizan

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Artium araba álava

KULTUR ARABA

Laguntzaileak / Colaboradores

KUARTANGO
UDALA-AYUNTAMIENTO

Artziniega Ayuntamiento
Artziniegako Udala

Artziniega MUSEOA

AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA

IZKI
PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL